

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ESKORIATZAKO UDALA

Iragarkia

2020ko martxoaren 11ako Alkate erabakiz, deialdia egin da gizarte zerbitzuetan diharduten elkarteentzako 2020ko diru laguntzetarako, eta era berean, 4.000 euroko gastua onartu da 0300.481.230.00.01.2020 partidaren kontura.

Eskoriatza, 2020ko martxoaren 11.—Idazkaria. (1569)

Gizarte Zerbitzuetan diharduten elkarteentzako diru laguntzak arautzen dituzten oinarriak.

1. artikulua. Helburua.

Beraien jarduera Gizarte Zerbitzuen alorrean egiten duten elkartei funtzionamendu gastuetarako zein proiektuak egiteko diru laguntzak, norgehiagoka erregimenean, ematea da oinarri hauen helburua.

2. artikulua. Erakunde onuradunak.

Diru laguntza eskatu ahal izango dute legez eraturako eta Eusko Jaurlaritzako elkartearen erregistroan inskribaturako irabazi-asmorik gabeko erakundeek, gizarte zerbitzu jarduerak Eskoriatzan garatu edota betetzen badituzte eta jarduera horiek deialdi honetako helburuarekin bat baldin badatoz.

Beraien jarduera gizarte zerbitzuetako alorrean garatu beharko dute eta helburutzat izan beharko dute parte hartzea bultzatzea, gizarte boluntarioria eta herritarren arteko elkartasuna sustatzea eta honako talde baten edo batzuetan integratzeko edo gizarteratzeko arazoak dituzten pertsonen arreta egitea: haurrak, gazteak, emakumeak, ezinduek, hirugarren adinekoak, gutxiengo etnikoak, preso ohiak, mendekotasunak dituztenak, pasadizoko jendea eta arrisku sozialean egoteagatik gizarte zerbitzuen laguntza behar duen edozein talde.

Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egun izan beharko dituzte.

Udal honek aurreko urteetan emandako diru laguntza behar bezala justifikatuta izan beharko dute.

3. artikulua. Diru laguntzak jaso ditzaketen jarduerak.

Diru laguntzak honako hauek finantzatzeko izango dira:

— Gizarte zerbitzuetako arloan jarduera zehatzak garatzea, esaterako, honako hauek: hitzaldiak, zabalkunde kanpainak, prestakuntza ikastaroak antolatzea, biztanleriaren zenbati sektoreen aisialdia eta asoziazionismoa sustatzea.

— Gizartean integratzea helburu duten taldeei zuzendutako jarduerak edota ekintzak.

— Taldeei arreta eskaintzea gizarte zerbitzuen eta osasun arloan.

— Elkarte eskatzaileen mantenimendua: telefona, faxa, bulego materiala, ekipamendu txikia eta abar.

AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA

Anuncio

Por Resolución de la Alcaldía de fecha 11 de marzo de 2020 han quedado convocadas las ayudas del ejercicio 2020 para las asociaciones que desarrollan su actividad en Servicios Sociales, así como aprobado a tales efectos el gasto de 4.000 euros con cargo a la partida 300.481.230.00.01.2020 del vigente presupuesto.

Eskoriatza, a 11 de marzo de 2020.—La secretaria. (1569)

Bases para la concesión de subvenciones a asociaciones que desarrollan su actividad en Servicios Sociales.

Artículo 1. Objeto.

Es objeto de las presentes bases, la concesión de ayudas, en régimen de concurrencia competitiva, a las asociaciones que desarrollan sus actividades en el ámbito de los Servicios Sociales, tanto para sus gastos de funcionamiento como para la realización de proyectos.

Artículo 2. Entidades beneficiarias.

Podrán optar a las subvenciones las entidades sin ánimo de lucro legalmente constituidas e inscritas en el registro de asociaciones del Gobierno Vasco, que desarrollan y/o atiendan actividades en el ámbito de municipio de Eskoriatza o atiendan en sus servicios a vecinos de Eskoriatza, y sean coincidentes con el objeto del presente programa de ayudas.

Deberán desarrollar su actividad en el ámbito de los Servicios Sociales y su finalidad será el fomento de la participación, la promoción del voluntariado social, la solidaridad entre los ciudadanos y la atención a personas con problemas de integración e inserción social en uno o varios de los colectivos siguientes: infancia, juventud, mujer, minusválidas, tercera edad, minorías étnicas, personas exreclusas, adicciones, transeúntes y cualquier grupo en riesgo social que precise de los Servicios Sociales.

Deberán hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

Deberán haber justificado debidamente la ayuda concedida por este Ayuntamiento en años anteriores.

Artículo 3. Actividades susceptibles de subvención.

Las subvenciones se destinarán a financiar:

— Dentro del área de servicios sociales el desarrollo de actividades específicas, como son: conferencias, campañas divulgativas, organización de cursos de formación, ocio y tiempo libre de ciertos sectores de la población, fomento del asociacionismo.

— Actividades y/o acciones dirigidas a grupos específicos de la población, cuyo fin sea su integración en la sociedad.

— Atención a colectivos dentro del área de los servicios sociales y sanitarios.

— El mantenimiento de las entidades solicitantes, entendiéndose como tales, teléfono, fax, material de oficina, equipamiento menor, etc.

4. artikulua. Eskaerak.

4.1. Epea:

Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita. Azken eguna larunbata edo jaieguna balitz, hurrengo egun baliodunera luzatuko da epe amaiera.

Eskaerak astelehenetik ostiralera, jendearentzako ordutegian, aurkeztu ahal izango dira Udal Erregistro Orokorrean edo, telematikoki, Herritarren Atarian.

Eskatzaileak aurkeztutako proiektuaren dokumentazioa osatu gabea edo urria dela egiaztatuko balu Udalak, 10 egun naturaleko epea emango dio eskatzaileari akats edo hutsegite hori konpontzeko, eta epe hori bukatuta, zuzenketa egin ez badu, eskaria besterik gabe artxibatu eta dokumentazioa eskatzaileari itzuliko zaio.

4.2. Aurkeztu beharreko agiriak:

Elkarte bakoitzak paperean eta formatu digitalean aurkeztu beharko du eskaera:

- a) Diru laguntza eskaera, eredu normalizatuaren arabera (I eranskina).
- b) Eusko Jaurlaritzako elkarte eta entitate-erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria. Ziurtagiri horretan helbide sozialari buruzko informazioa agertu beharko da.
- c) Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.
- d) Erakundeak Gizarte Segurantzarekin eta Foru Aldundia-ekin zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak.
- e) Banku edo aurrezki entitate batek emandako agiria, erakunde eskatzailea kontu korrante baten titularra dela ziurtagituko duena (II eranskina).

Elkarteek zehaztu egin beharko dute deialdian aurkezten dituzten ekintzek beste erakunde batzuetako diru laguntzarik jaso duten, eta, hala bada, horien zerrenda aurkeztu beharko dute, zenbatekoa eta helburua azalduz, diru laguntzak ordaintzean bikoiztasunik izan ez dadin eta baliabideak ahalik eta modurik egokienean esleitu daitezten.

5. artikulua. Balorazio irizpideak.

Eskatutako beharkizunak betetzen dituzten eskaeren artean diru laguntzen banaketa egiteko honela jokatuko da:

- * Elkarte eskatzaileak gizarte arloan izandako jarraitasuna eta egonkortasuna. 10 puntura arte.
- * Eskoriatzako onuradun kopurua. 40 puntura arte.
- * Zailtasun sozialak dituzten herritarrei hobekuntza pertsonala, familiarra edo beste mota batekoa lortzen laguntzeko elkarteak eskaini ditzakeen zerbitzu eta ekintzak kontuan hartuko dira. 15 puntura arte.
- * Genero ikuspegia xertatzea edo emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea. 5 puntura arte.
- * Jarduerak Eskoriatzan egitea. 25 puntura arte.
- * Udal gizarte zerbitzuekin elkarlanean aritzea eta koordinatzea. 25 puntura arte.
- * Euskararen normalizazioari egiten zaion ekarpena:

– Elkarteak euskararen normalizazio irizpideak izateagatik: 5 puntura arte.

– Jarduerak euskaraz gauzatzegatik: 5 puntura arte.

6. artikulua. Aurrekontua.

Deialdian zehaztuko da aurrekontu zuzkidura, eta ekitaldi bakoitzerako onartutako aurrekontuan berariaz sartuta egon beharko da.

Artículo 4. Solicitudes.

4.1. Plazo:

El plazo para presentar las solicitudes será de un mes a contar desde el día siguiente a la publicación del anuncio de la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa. Si el último día del plazo fuese sábado o festivo, se prorrogará hasta el siguiente día hábil.

Las solicitudes se podrán presentar de lunes a viernes, en horario de atención al Público, en el Registro General del Ayuntamiento o de manera telemática en el Portal del Ciudadano.

Si el Ayuntamiento comprobara que la documentación es insuficiente respecto al proyecto presentado, concederá al mismo un plazo de 10 días naturales para subsanar la omisión o deficiencia, transcurrido el cual sin haber procedido a la subsanación, la solicitud se archivará sin más trámite y se devolverá la documentación al solicitante.

4.2. Documentación a aportar:

Cada asociación deberá presentar la solicitud en formato papel y formato digital:

- a) Solicitud de subvención conforme al modelo normalizado (anexo I).
- b) Certificado de inscripción en el registro de asociaciones y entidades del Gobierno Vasco. En dicho certificado tendrá que aparecer información referente a la sede social.
- c) Fotocopia del Código de Identificación Fiscal.
- d) Documentación que acredite estar al corriente de las obligaciones tributarias con la Seguridad Social y la Diputación Foral.
- e) Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro, que certifique la titularidad de una cuenta corriente abierta por la entidad solicitante (anexo II).

Las organizaciones deberán especificar si las acciones que presentan a la convocatoria han sido objeto de solicitud o concesión de ayudas por otras entidades en cuyo caso deberán presentar relación de las mismas, detallando su cuantía y finalidad, al objeto de evitar duplicidades en el pago de subvenciones y posibilitar la más adecuada asignación de los recursos.

Artículo 5. Criterios de valoración.

La asignación de las subvenciones entre las solicitudes que cumplan los requisitos establecidos se hará de la siguiente forma:

- * Continuidad y estabilidad demostrada por la entidad solicitante en el ámbito social. Hasta 10 puntos.
- * Número de personas de Eskoriatza que son beneficiarias. Hasta 40 puntos.
- * Oferta de servicios o actividades de la asociación dirigidos a ciudadanos con dificultades sociales y que contribuyan a la mejora personal, familiar o de otra índole. Hasta 15 puntos.
- * Integración de la perspectiva de género o bien promoción de la igualdad de mujeres y hombres. Hasta 5 puntos.
- * Desarrollo de actividades en Eskoriatza. Hasta 25 puntos.
- * Colaboración y coordinación con los Servicios Sociales Municipales. Hasta 25 puntos.
- * Aportación que se realiza a la normalización del euskera:

– Por criterios lingüísticos de la asociación: Hasta 5 puntos.

– Por realizar las actividades en euskera: Hasta 5 puntos.

Artículo 6. Presupuesto.

En la convocatoria se concretará la dotación presupuestaria, que deberá haber sido incluida de manera específica en los presupuestos del año en curso aprobados.

7. artikulua. Proposamena egitea eta erabakitzea.

Eskutatuko agiriak aurkeztu ondoren, Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aztertuko ditu aurkeztutako eskaerak eta, horrelakorik izanez gero, txosten teknikoak; eta diru laguntzak emateko proposamena egingo dio Alkateari.

8. artikulua. Erakunde eskatzaileari jakinaraztea.

Eskariak aurkezteko epea amaitzen denetik kontaktzen hasita hilabete eta erdiko epean jakinaraziko zaie eskatzaileei organo eskudunak hartutako erabakia. Epea amaitutakoan Udalak ez balu berariaz inolako erabakirik hartu eskaeraren bati buruz, eskaera ez dela onartu ulertu beharko da.

9. artikulua. Justifikazioa.

Araudi honek dioenaren arabera emandako diru laguntzak jasotzeko, ezinbestekoa izango da diruz lagundutako aktibitateak edo jarduerak eginak izatea eta Udaletxean ondoko agiriak aurkeztea:

– Diruz lagundutako proiektuari buruzko memoria (III. eranskina).

– Diruz lagundutako proiektua dela-eta izandako sarreraren eta gastuen balantzea, hasieran aurkeztutako aurrekontuari egokitu dela egiaztatzeko. Balantze hori organo eskudunak onartuta eta erakundeko idazkariak ziurtatuta egon beharko da. Hasieran aurkeztutako aurrekontuari zein neurritan egokitu zaion balantzea egiaztatzeko, justifikazioarekin batera hasierako aurrekontuarekiko balantzeak izandako desbideraketa taula aurkeztu beharko da, eta desbideraketarik izanez gero, horiek justifikatzeko txostena ere egin beharko da.

– Proiektuak sortutako gastuen zerrenda sailkatua (III. eranskinetik justifikatzeko kontua) honako hauekin: hartzekodunaren identifikazioa, faktura zenbakia edo frogabaliobaliokidea duen dokumentua, zenbatekoa, fakturaren data eta ordainketa eguna.

– Gastu horiek honela justifikatuko dira:

Jardueragatik egindako gastuen jatorrizko fakturak (ordainketa egiaztatuta) behar bezala beteta, edo horien fotokopia konpultsatuak. Fakturak udal erregistro orokorrean konpultsatu ahal izango dira. Diruz lagundutako jarduera osoarengatik aurkeztu beharko dira fakturak, nahiz eta Udalak emandako diru laguntza hasierako aurrekontua baino txikiagoa izan.

Justifikatuko diren gastu guztiek diru laguntza jasotako urteko data izan behar dute eta diruz lagundutako proiektuarekin bat etorri behar dira.

Fakturak, gutxienez, honako hauek izan beharko dituzte:

– Faktura egiten duen enpresa edo pertsona fisikoaren datu guztiak: izena, helbidea, IFK edo NAN.

– Diru laguntzaren onuradunak ordaintzeko jaulkitako fakturak izan beharko dira, eta bertan jaso beharko dira bere izena, helbidea eta IFK, kontzeptua, unitateak, koste totala unitateko, koste totala eta BEZ banakatua edo BEZ barne den, faktura zenbakia, jaulkipen data eta ordainketa modua. BEZa salbuetsita duten operazioetan hori egiteko arauaren erreferentzia jaso beharko da.

Langileen gastuak justifikatzeko:

Jarduerarekin lotutako langile guztien zerrenda, erakundeko ordezkariak ziurtatua; bertan adierazi beharko da bakoitzak egindako lan edo funtzioak, horretan emandako denbora eta kostea.

Kontratuak, nominak, Gizarte Segurantzari kotizatu izanaren buletinak (TC/1 eta TC/2 dokumentuak) edo erregelamenduz horiek ordezkatzeko dituztenak eta PFEZ kontzeptuagatik egindako atxikipenak Ogasunean sartu izanaren dokumentuak.

Artículo 7. Elaboración y resolución de propuesta.

Presentada la documentación requerida, la Comisión de Servicios Sociales estudiará y analizará las solicitudes recibidas y los informes técnicos elaborados en su caso, elevando propuesta de concesión a la alcaldía.

Artículo 8. Notificación a la entidad peticionaria.

La resolución adoptada por el órgano competente será debidamente notificada a las entidades solicitantes en el plazo de un mes y medio desde la finalización del plazo de presentación. Si transcurrido el plazo citado el Ayuntamiento no hubiese dictado resolución expresa sobre alguna solicitud, se entenderá que la misma ha sido denegada.

Artículo 9. Justificación.

Para percibir las subvenciones concedidas de acuerdo con las prescripciones de esta norma, será preciso presentar al Ayuntamiento la siguiente documentación:

– Memoria explicativa del proyecto subvencionado (anexo III).

– Balance de ingresos y gastos realizados con motivo del proyecto subvencionado, de manera que se pueda comprobar que se ha ajustado al presupuesto inicial presentado. Dicho balance deberá de estar aprobado por el órgano competente y certificado por el representante de la entidad. Para comprobar la medida en que se ha ajustado el balance al presupuesto inicial presentado, se acompañará con la justificación el cuadro de desviaciones del balance con respecto al presupuesto inicial, y en el caso de que en el mismo se observen desviaciones, se cumplimentará el informe de justificación de las mismas.

– Una relación clasificada de los gastos que ha generado el proyecto (cuenta justificativa del anexo III), con identificación del acreedor, número de la factura o documento de valor probatorio equivalente, el importe, la fecha de emisión y la fecha de pago.

– Dichos gastos se justificarán con:

Facturas originales (con acreditación de su pago) debidamente cumplimentadas o fotocopias compulsadas de las mismas de los gastos realizados en el ejercicio de la actividad. La compulsas de facturas se podrá realizar en el Registro General del Ayuntamiento. Las facturas habrán de presentarse por el conjunto de la actividad subvencionada aún cuando el otorgamiento de la subvención municipal sea inferior al presupuesto inicial.

Todos los gastos que se justifiquen deberán estar datados durante el año en que se haya concedido la subvención, y corresponder al proyecto objeto de subvención.

Las facturas deberán incluir como mínimo lo siguiente:

– Datos completos de la empresa o persona física emisora: denominación, domicilio, CIF o DNI.

– Estarán expedidas a nombre del beneficiario de la subvención, haciendo constar su denominación, domicilio y CIF, concepto, unidades, coste total por unidad, coste total e IVA desglosado o incluido, n.º de factura, fecha de emisión y forma de pago. Deberá constar la referencia normativa en caso de operaciones exentas de IVA.

Para la justificación de los gastos de personal:

Relación certificada por el representante de la entidad de todo el personal que se imputa a la actividad, con especificación de las tareas o funciones que ha realizado, tiempo de dedicación y coste.

Contratos, nóminas, boletines de cotización al la Seguridad Social (documentos TC/1 y TC/2) o los que sustituyan reglamentariamente y documentos de ingreso en Hacienda de las retenciones practicadas en concepto de I.R.P.F.

Kontzepturen batekin zalantzarik sortuz gero, gastu horri buruzko zehaztasun gehiago aurkeztea eskatu ahal izango zaio elkarteari.

Justifikatzeko epeari dagokionez, eskatutako dokumentazioa deialdiko urteko azaroaren 29a baino lehen aurkeztu behar da.

10. artikulua. Ordaintzeko epea eta modua.

Diru laguntza bi alditan ordainduko da:

– Lehenengo ordainketa, % 60a, gehienez ere hilabeteko epean diru laguntza emateko erabakia hartzen denetik kontantzen hasita.

– Bigarren ordainketa, % 40a, txostena aurkeztu eta proiektua diru laguntzaren deialdiko azaroaren 29a baino lehen % 100ean egin dela dokumentu bidez justifikatu ondoren.

11. artikulua. Diru laguntzaren erregularizazioa.

Benetan izandako gastu eta diru sarrerak ikusita, emandako diru laguntza zuzenduko da diru laguntzaren bigarren ordainketa egin behar denean.

Diru laguntza ematerakoan kontuan hartutako baldintzak aldatzen baldin badira edo helburu berarekin beste erakunde batzuk emandako diru laguntzarik jasoz gero, horiek diru laguntza emateko erabakia aldatzea ekar dezakete bigarren ordainketa egiterakoan.

12. artikulua. Euskararen erabilera.

Diruz lagundutako jarduerari buruzko informazioa emateko egingo den publizitate edo propagandan, euskera erabiltzera joko da. Bi hizkuntza ofizialak erabiltzen badira, euskarari emango zaio lehentasuna.

13. artikulua. Betebeharrak ez betetzea.

Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharren bat ez betetzeak, emandako diru laguntza berrikustea ekarriko du eta hala behar izanez gero, diru laguntza deuseztatzea, gutxitzea edo itzularaztea.

14. artikulua. Bateragarritasuna beste diru laguntza batzuekin.

Udalak emandako diru laguntza bateragarria izango da helburu bererako emandako beste edozeinekin.

Hala ere, diru laguntza ezin izango da izan, bera bakarrik edo beste laguntza batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

15. artikulua. Diru laguntza bertan behera uztea edo baliogabetzea.

Diru laguntza berraztertzeke eta, hala bada, bertan behera uzteko arrazoia izango da diru laguntza jasotzea eskatutako baldintzak bete gabe.

16. artikulua. Interpretazioa.

Oinarriak interpretatzerakoan eta garatzerakoan sor daitezkeen zalantzak Gizarte Zerbitzuetako batzordeburuak erabakiko ditu.

17. artikulua. Araudi osagarria.

Oinarri hauetan berariaz ezarrita ez dagoenarako, estatuko azaroaren 17ko 38/2003 Legean ezarritakoa zein diru laguntza arloan indarrean dagoen gainerako legedia aplikatuko da.

Si surge alguna duda en torno a alguno de los conceptos, se podrá solicitar información más detallada a la organización.

Respecto de los plazos para la justificación, deberá de presentarse la documentación requerida antes del 29 de noviembre del año en curso.

Artículo 10. Plazo y forma de pago.

El abono de la subvención se hará en dos pagos:

– El primer pago, 60 %, en el plazo máximo de un mes, contado a partir del acuerdo de concesión.

– El segundo pago de 40 %, previo informe y justificación documental de la realización del proyecto en un 100 % antes del 29 de noviembre del año en curso.

Artículo 11. Regularización de la subvención.

A la vista de los gastos e ingresos realmente producidos, se efectuará la oportuna rectificación de la subvención concedida en el momento de abonar en el segundo pago.

La modificación de las condiciones tenidas en cuenta al otorgar la subvención, así como las ayudas económicas recibidas por otras entidades con el mismo fin, podrán conllevar también una modificación en el momento de abonar en el segundo pago.

Artículo 12. Uso del euskera.

En la publicidad o propaganda que se utilice para dar información sobre la actividad subvencionada se tenderá a utilizar únicamente el euskera. En caso de que se utilicen las dos lenguas oficiales, se dará preferencia al euskera.

Artículo 13. Supuesto de incumplimiento.

El incumplimiento de cualquiera de las obligaciones previstas en las presentes bases, supondrá la revisión de la Concesión y, en su caso, la anulación, disminución o devolución de la cantidad otorgada.

Artículo 14. Compatibilidad con otras subvenciones.

La subvención concedida por el Ayuntamiento será compatible con cualquier otra recibida para el mismo fin.

Sin embargo, el importe de la subvención no podrá ser, por sí sola o junto con otras subvenciones, superior al costo de la actividad subvencionada.

Artículo 15. Anulación o revocación de la subvención.

Será motivo de revisión y, en su caso, de anulación de la subvención concedida, el haberla recibido sin cumplir las condiciones requeridas para ello.

Artículo 16. Interpretación.

Cualquier duda surgida en la interpretación y desarrollo de estas bases será resuelta por la presidenta de la comisión de Servicios Sociales.

Artículo 17. Normativa supletoria.

Para cuanto no esté expresamente establecido en las presentes bases, será de aplicación lo dispuesto en la ley estatal 38/2003, de 17 de noviembre así como el resto de la legislación en vigor en materia de subvenciones.